JAIETAKO KARTELA AUKERATZEKO LEHIAKETEAREN OINARRIAK

Jai batzordeak **"ANDRA MARI ETA SANTA EUFEMIA JAIAK 2019"** iragarriko dauzen kartela aukeratzeko lehiaketarako deialdia zabaldu dau. Aurkeztutako lanetatik Bermeoko jaietako kartel iragarlea eta egitarauaren azala aukeratuko da.

GAIA: Bermeoko jaiak. Kartela Bermeoko jaietako adierazle izan behar da. Horretarako honako ezaugarri honeek hartuko dira kontuan: jai herrikoiak eta herritarrentzat izatea, parte-hartzaile eta sortzaileak, euskaldunak, feministak, solidarioak eta ekologistak .

LANAK AURKEZTEA: derrigorrez, 50 x 70 cm-ko neurrikoa izan behar da, gura dan beste kolore eta edozein teknika erabiliz. Lana euskarri gogor bati lotuta aurkeztu daiteke edo euskarri informatikoan (CD edo Pen Drive baten), hiru digitalizazinogaz: lehenengoa 200 kb-ko JPGa, bigarrena Mb1-eko JPGa eta PDF bat, bereizmen handikoa inprimitzeko azken tamainan.

LANAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA: Lanak Bermeoko Gizarte eta Kultura Etxean aurkeztuko dira. Izenburuagaz eta egilearen sinadura barik aurkeztuko dira. Izenburu bera daroan gutun-azal itxi baten, egilearen datuak adierazoko dira.
Epea: ekainaren 19an, 21:00etan amaituko da.

TESTUA: testu hau jarri beharko da:
BERMEOKO JAIAK 2019
Irailaren 7tik 16ra

AUKERATZEA:
Finalistak aukeratzea:
Jai batzordeko eta artearen munduko herriko kideek osaturiko epaimahaiak aurkeztutako kartel guztiak ikusiko dauz eta onenen artean **finalistak** aukeratuko dauz.
Irabazlea aukeratzeko prozesua herritarren botoekaz:
*Kartel finalistak ekainaren **25etik uztailaren 4ra** ikusgai egongo dira on-line eta Gizarte eta Kultura Etxean
Pertsona bakotxak boto bakarra emon ahal izango dau, Gizarte eta Kultura Etxean jarriko dan kutxan (%70eko balioa izango dabe) **edo** internet bidez (% 30eko balioa)
Halanda be, herritarren bozketan bardinketarik edo arazorik balego, irabazlea aukeratzea epaimahaiaren esku geratuko da.
Irabazlea **uztailaren 5ean** jakinarazoko da
Udalak kartel irabazlearen jaubetzea ez eze, jendaurreko komunikazinorako, kopietarako eta banatzeko eskubideak be eskuratuko dauz; eskubide horreek udalarenak baino ez dira izango.

SARIA: sari bakarra egongo da, 600€-koa.
Sariaren zenbatekoari legez ezarritako atxekipen fiskala aplikatuko jako.

Kultura eta Hezkuntza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9157 Faxa: 94 688 15 18
kultura@bermeo.eus / www.bermeo.eus IFK: P4802100J

BESTE BALDINTZA BATZUK: Irabazlea nor dan jakin arte, parte-hartzaileek ezin izango dabe kartelen egileen nortasunik publikoki ezta sare sozialetan adierazo, egitekotan kanporatu egingo dira. Arrazakeria, sexismoa eta homofobia adierazten daben kartelak kanporatu egingo dira. Bermeoko Udalak egileari jaietako kartelean aldaketak egitea eskatu leikioz.

Sarituak izan ez diran lanak batzeko epea, uztailaren 10etik irailaren 30era artekoa izango da. Epe hori igaro eta gero, jaso ez diranak udalarentzat izango dira. Lehiaketan parte hartzeak, baldintza guzti-guztiak onartzen dirala esan gura dau.

ARGIBIDE GEHIAGO:
Bermeoko Gizarte eta Kultura Etxea–Irakaskintza 14 -16. tel.: 946179157; kultura@bermeo.eus / www.bermeo.eus